

## AZTERKETAREN KODEA: COE01

**LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ GASTEIZKO UDALEKO KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA LANPOSTUAK JABETZAN BETETZEKO EGONKORTZE-DEIALDI BEREZIA, 20/2021 LEGEARI DAGOZKION EGONKORTZEKO ETA BITARTEKOTASUN-TASA MURRIZTEKO PROZESUEN BARRUAN**

### GALDETEGIA

<b>DEIALDIA</b>	<b>Kodea</b>	<b>Deialdiaren izena</b>
	COE01	AUKERA BERDINTASUNEN AGENTEA
<b>DATA</b>	2023KO URRIAREN 27A (10:00)	
<b>Denbora, gehienez:</b>	120 MINUTU	

\*\*\*\*\* Mugikorrak itzalita\*\*\*\*\*

**JARRAIBIDEAK** (irakurri arretaz orri hau)

**Ez zabaldu esan arte.**

Galdetegi honek **20 galdera** ditu. **Galdera bakoitzean dagokion puntuazioa dago adierazita. Probaren gehienezko puntuazioa: 60 puntu.**

Galarazita dago erlojua erabiltzea; gelan horrelakorik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den, 30 minutuan behin, eta denbora bukatzean dela, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, baita azken minutuan ere.

Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa. Galarazita dago errotuladoreak erabiltzea. Galdera-orrietan markarik eginez gero, galderei erantzuteko beharrezkoa denaz aparte, galdera-orria baliogabetu egingo da.

Bete ezazu mahai gainean duzun **IDENTIFIKAZIO-ORRIA**. Idatzi zure NANA, izena, abizenak eta deialdiaren kodea/izena. Orriaren beheko aldean, **IDENTIFIKAZIO-GAKO pertsonalizatu** eta bakarria agertzen da, eta hori ERANTZUN-ORRIETAN kopia beharko da. Identifikazio-orria bereiz jasoko da, probaren lehen minutuak igaro ondoren.

**ERANTZUN-ORRIAK.** Mahai gainean zenbait orri aurkituko dituzu erantzunak idazteko. Idatzi, goiko aldean, **AZTERKETAREN KODEA** (ikus galdetegi honen goiburua) eta egokitu zaizun IDENTIFIKAZIO-GAKOA. Erantzunak boligrafo urdinez edo beltzez idatziko dira. Probaren amaieran, erantzun-orriak entregatu aurretik, adierazi orri bakoitzean zein den orriaren ordena-zenbakia eta guztira zenbat orri ematen dituzun.

Proba amaitu baduzu, eta izangaiak identifikatzeko lanak dagoeneko bukatu badira, altxatu eskua, zure erantzun-orriak jaso ditzaten. **Ziurta ezazu zuzentzeko diren orriak ematen dituzula —ez zirriborroak—.**

Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Ohar garrantzitsua:** AZTERKETA-ORRIETAN EZ idatzi izenik edo NANik, ez sinatu eta ez erantsi zu identifikatzeko bide ematen duen elementurik. EZ ZUZENTZEKO arrazoia da.

**Gogoan izan:** erantzun labur eta zehatzak eman beharko dira, zuzenketa aurrez zehaztutako irizpideen arabera egingo baita.

**Berlaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

**1. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

1978ko Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua arabera, espainiarrak berdinak dira legearen aurrean. Artikulu horren arabera, ezin da bereizkeriarik egin zenbait arrazoi direla eta. Aipatu arrazoi horietako lau.

**2. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 130.1 artikulua arabera, zein dira udaletako bi goi-organoak?

**3. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 4. artikulua arabera, nortzuk jotzen dira interesduntzat administrazio-prozeduran? Aipatu hiru interesdunak.

**4. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 61. artikulua arabera, zeintzuk dira elkarguneen funtzioak? Aipatu artikulu horretan agertzen diren zortzi funtzioetatik lau.

**5. GALDERA** Puntuak, guztira: 4 puntu.

Aipatu gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean botere publikoaren jarduna arautu eta bideratu behar duten zortzi printzipio orokor.

**6. GALDERA** Puntuak, guztira: 2,5 puntu.

Adierazi Emakundek toki-administrazioan genero-berdintasunerako teknikariak hornitzeko oinarri gisa jasotzen dituen funtzioetako bost.

**7. GALDERA** Puntuak, guztira: 4 puntu.

Genero Berdintasunerako II. Plana Gasteizko Udaleko Enplegu Publikoaren eremuan (2022-2024) bost ildo estrategikotan egituratzen da. Aipatu bost ildo horiek, eta horietako batean sartzen diren jarduketan deskribapen laburra egin.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## AZTERKETAREN KODEA: COE01

### 8. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Genero Berdintasunerako II. Plana Gasteizko Udaleko Enplegu Publikoaren eremuan:

8a.- Adierazi zer udal sailek duen plana ezartzeko ardura, eta adierazi zer zeregin edo funtzio dituen.

8b.- Berdintasunerako batzorde paritarioa: kideak eta funtzioak.

### 9. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren sei printzipio gidariak identifikatu, estrategikoak izanik genero-desberdinkeriak desagerraraztera bideratutako udal jarduketaren oinarri baitira.

### 10. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Aipa itzazu EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren plangintzan, jarraipenean eta ebaluazioan esku hartuko duten lan-egiturak eta languneak.

### 11. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta jendaurreko erantzun publikoa emateko duen Protokoloan batzorde politiko-teknikoa deskribatzen da; adierazi nortzuek osatzen duten eta zein diren batzorde horren funtzioak.

### 12. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Adieraz ezazu zein diren indarkeria matxistaren biktimei arreta, esku-hartzea eta bidelaguntza eskaintzen dizkieten udal agente nagusiak, Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, haiekin esku hartzeko eta haien bidelagun aritzeko III. Udal Protokoloaren arabera.

### 13. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Gasteizko Udalak genero-ikuspegia txertatzen du udal aurrekontuen diseinuan. Aurrekontua egiteko prozesuarekin lotutako esaldi hauetako bat edo batzuk faltsuak dira. Identifikatu, eta azaldu zergatik (bi baino gehiago markatuz gero 0 puntuazioa 0 izango da).

1.- Genero-ikuspegia gastuen partidetan ez ezik diru-sarreretan ere aplikatu behar da.

2.- Udal aurrekontuek, genero-ikuspegitik aztertuta, agerian uzten dute arau eta politika publikoak neutroak direla generoari dagokionez, eta, beraz, ez dute eragin desberdinik emakumeengan eta gizonengan.

3.- Aurrekontu publikoak genero-ikuspegiarekin egitearen helburua da, besteak beste, aurrekontuak emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politiken helburuei egiten dien ekarpena zehaztea.

4.- Aurrekontu-partida bat generoarekiko egokia eta sentikorra denean, ulertzen da beti eragin positiboa duela bai emakumeek, gizonen eta LGTBI pertsonen baliabideak eskuratzeari dagokionez, bai haiek bizi dituzten desberdintasun-posizioei dagokienez.

5.- Toki-administrazioak emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa errespetatu beharko du bere politika publikoak definitzean eta horien aurrekontu-zuzkidura zehaztean.

**14. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Plana lau ildo eta hamaika programatan egituratzen da, eta Sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko Agenda ere barne hartzen du tresnen artean. Adieraz itzazu 1. ildoaren barruan (*Berdintasuna udal gobernuaren ereduan*), Sexu- eta genero-aniztasunaren Agenda horri erantzuten dioten lau jardura.

**15. GALDERA** Puntuak, guztira: 2 puntu.

Zer da Etxegunea?

**16. GALDERA** Puntuak, guztira: 3,5 puntu.

Aipatu Emakumeen Etxeko bost zerbitzu eta baliabideak.

**17. GALDERA** Puntuak, guztira: 2 puntu.

Aipa itzazu Jabetze Eskolaren programazioaren diseinua arautzen duten zortzi ildo estrategikoak.

**18. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak (GEE): aplikazio-eremua, nork egin behar dituen eta noiz egin behar diren, *Generoaren arabera eraginaren txostenak egiteko gidaliburuan* (Emakunde) jasotakoaren arabera.

**19. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Berdinsarea: definizioa, partaideak eta helburua adierazi.

**20. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Ikusgune: definizioa eta helburua adierazi.